## Zk-6568

273/2002 DEKRETUA, azaroaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hazitarako patatak ekoizteko arauak ezarri dituena.

Hazitarako patataren ekoizpena laborantza bereizgarriena izan da urte askotan Arabako Lurralde Historikoan. Nolanahi ere, azken urteotan krisialdi gogorra jasan du. Hori dela eta, Mintegiko Hazien eta Landareen maiatzaren 30eko 11/1971 Legeak eta hori garatzen duten arauek ezarritako esparruaren barruan, laborantza hori Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen zuten arauak egokitu behar izan ziren, labore hori zaintzeko eta ez galtzeko.

Egokitze hori, 1995eko martxoaren 27ko Aginduan islatu zen. Izan ere, agindu horretan hazitarako patatak ekoizteko arauak ezarri baitziren. Geroago, agindu hori indargabetu eta 1998ko otsailaren 23ko Aginduak ordezkatu zuen (2000ko otsailaren 3ko AgindUz aldatuta). Eta, azkenean, agindu hori ere indargabe utzi eta urtarrilaren 23ko 10/2001 Dekretuak ordezkatu zuen.

Une latzenak pasa dira eta patata-laborantzak nolabaiteko egonkortasuna lortu du. Dena den, indarreango arauen zenbait akats teknikok eta betekizunekiko malgutasun-gehiegikeriak auzitan jar ditzakete laborantzaren kalitate agronomiko eta sanitarioa. Horregatik, komeni da oraingo araudia aldatu eta normaltasun-egoera berrira egokitzea. Horrela, hazitarako patata-ekoizleen, eta, batez ere, hazitarako patata ekoizteko baimendutako eremuen barruan jateko patata ekoiztu nahi dutenen bete beharrekoak zorrotz betearazi behar dira, azken produktuaren kalitatea eta sanitatea, eta horrekin batera, lehiakortasuna hobeagotzeko.

Horiek horrela, dekretu honetan ezarritakoarekin bat etorriz, dagoeneko ezin dira eremu irekirik egon hazitarako patata ekoizteko baimendutako eremuen barruan. Beraz, eremu lehentasunezkoak eta esklusiboak baino ez dira egongo; era berean, baimendutako eremuaren barruan, ekoizpen integratu edo ekologikoaren arauetara bildutako lursailak ere egon daitezke. Horretarako, kasuan kasuko salbuespenak arautuko dira. Bestetik ere, herrien sailkapena aldatzeko prozedura aurreikusi da, eta, azkenik, arau-hauste eta zehazpenak zehaztu eta eguneratu dira.

Dekretu hau egiteko, aholkua eskatu zaie Patataren Batzorde Sektorialean ordezkatutako erakunde profesional eta sektore-elkarteei, bai eta Arabako Foru Aldundiari ere.

Horren indarrez, Patataren Batzorde Sektorialari, Eusko Jaurlaritzako Lege Aholkuetarako Batzordeari kontsulta egin ondoren, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren, honako hau

## N°-6568

DECRETO 273/2002, de 12 de noviembre, por el que se establecen normas para la producción de patata de siembra en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La producción de patata de siembra ha constituido durante muchos años un cultivo emblemático del Territorio Histórico de Álava. No obstante, este cultivo sufrió una fuerte crisis en tiempos recientes, lo que obligó a adaptar, dentro del marco establecido por la Ley 11/1971, de 30 de mayo, de Semillas y Plantas de Vivero, y todas sus normas reglamentarias de desarrollo, la normativa reguladora del cultivo en la Comunidad Autónoma del País vasco con la finalidad de preservar dicho cultivo y evitar su desaparición.

Expresiones de esas modificaciones normativas son la Orden de 27 de marzo de 1995, por la que se establecen normas para la producción de patatas de siembra, derogada y sustituida por la Orden de 23 de febrero de 1998, modificada por la Orden de 3 de febrero de 2000 y que, a su vez, ha sido derogada y sustituida por el Decreto 10/2001, de 23 de enero.

Una vez superados los momentos más críticos y estabilizado el cultivo, ciertos defectos técnicos de la actual normativa así como el exceso de flexibilidad en cuanto a las exigencias a cumplir pueden llegar comprometer la calidad agronómica y sanitaria del cultivo. Por ello se hace aconsejable sustituir la actual normativa por otra que responda mejor a una situación de normalidad y eleve las exigencias a cumplir por parte de los cultivadores de patata de siembra y, sobre todo, por parte de quienes pretendan hacer patata de consumo dentro de las zonas autorizada para patata de siembra, con la finalidad de aumentar la calidad y sanidad del producto final y, por ende, su competitividad.

Así, el presente Decreto suprime la posibilidad de que existan localidades clasificadas como abiertas dentro de las zonas autorizadas para la producción de patata de siembra de modo que solo existan localidades exclusivas y preferentes; contempla la posibilidad de que dentro de la zona autorizada existan parcelas acogidas a las normas de la producción integrada o ecológica, estableciendo las oportunas excepciones para tal caso; prevé un procedimiento para el cambio en la clasificación de localidades; y concreta, especifica y actualiza el cuadro de infracciones y sanciones.

Las organizaciones profesionales y asociaciones sectoriales representadas en la Comisión Sectorial de la Patata, así como la Diputación Foral de Álava, han sido consultadas en la elaboración del presente Decreto.

En su virtud, consultada la Comisión Sectorial de la Patata, oida la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 12 de noviembre de 2002,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Helburua.

Dekretu honek helburu dauka Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-esparruan hazitarako patataren ekoizpenari buruzko arauak eta, bereziki, Mintegiko Hazien eta Landareen Ekoizpenari buruzko Erregelamendu Orokorrean eta Hazitarako Patataren Kontrol eta Ziurtapenari buruzko Arautegi Teknikoan ezarritako arauak garatzea eta osatzea.

*2. artikulua.–* Geografi aldeen mugapena.

Hazitarako patata ekoizteko baimentzen diren geografi aldeak, Arabako Lurralde Historikoan, honela mugatuko dira:

1. aldea.– Arabako Lautada eta Arabako Mendialdea.

Iparraldeko muga: Elgea eta Urkilla mendizerrak.

Hegoaldeko muga: Kantauriko mendizerra.

Ekialdeko muga: Nafarroako Foru Erkidegoarekiko lurralde-muga, Santa Kurutze Kanpezu, Antoñana, Buxanda, Korres eta Urbisuko administrazio-batzarrak kenduta.

Mendebaldeko muga: Vitoria-Gasteizen abiatu eta Arroiabetik Landara doan errepidea; Vitoria-Gasteizen abiatu eta Peñacerrada-Urizaharratik Logroñora doan errepidea, Burgosko probintziako Trebiñoko konderriaren lurralde-mugari Pagoetaraino jarraituaz, eta administrazio-batzar horren eta Montoriakoaren jurisdikzioaren mugari jarraitu eta Kantauriko mendizerraraino jaitsiaz.

2. aldea.– Gaubea (Valdegovía).

Gaubeako udal mugartearen zatia, Pinedo eta Basabe herriguneen mendebaldean gelditzen dena, hain zuzen ere, bi gune horiek barne direla.

*3. artikulua.–* Herrien sailkapena.

Hazitarako patata ekoizteko baimendutako herriak honela sailkatuko dira:

a) Lehentasunezkoak: dekretu honen 2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera baimendutako geografi aldeak, baldin eta aurreko bi kanpainetan hazitarako patata lantzeko gordetako azalera, aurreko bi ekitaldietan patata lantzeko erabili den batez besteko azaleraren %80tik beherakoa da.

b) Esklusiboak: dekretu honen 2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera baimendutako geografi aldeak, baldin eta aurreko bi kanpainetan hazitarako patata lantzeko gordetako azalera, aurreko bi ekitaldietan patata lantzeko erabili den batez besteko azaleraren %80tik gorakoa bada.

*4. artikulua.–* Sailkatzeko prozedura.

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

El objeto del presente Decreto es desarrollar y complementar en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco la normativa relativa a la producción de patata de siembra y en especial las regulaciones establecidas en el Reglamento General sobre Producción de Semillas y Plantas de Vivero y en el Reglamento Técnico de Control y Certificación de Patata de Siembra.

*Artículo 2.–* Delimitación de zonas geográficas.

Las zonas geográficas autorizadas para la producción de patata de siembra, correspondientes al Territorio Histórico de Álava quedan delimitadas de la siguiente manera:

Zona 1.– Llanada y Montaña Alavesa.

Límite norte: Las Sierras de Elguea y Urkilla.

Límite sur: La Sierra de Cantabria.

Límite este: El límite territorial con la Comunidad Foral de Navarra, excluidas las Juntas Administrativas de Santa Kurutze Kampezu/Santa Cruz de Campezo, Antoñana, Buxanda/Bujanda y Orbiso.

Límite oeste: La carretera de Vitoria-Gasteiz a Landa, por Arroiabe; La carretera de Vitoria-Gasteiz a Logroño por Urizaharra/Peñacerrada, siguiendo por el límite territorial del Condado de Treviño en la provincia de Burgos hasta Pagoeta/Payueta y descendiendo por el límite de la jurisdicción de esta Junta Administrativa y la de Montoria hasta la Sierra de Cantabria.

Zona 2.– Valdegovía.

La parte del término municipal de Valdegovía al oeste de las localidades de Pinedo y Basabe, incluidas éstas.

*Artículo 3.–* Clasificación de localidades.

Las localidades autorizadas para la producción de patata de siembra se clasificarán en:

a) Preferentes: aquéllas que se encuentren dentro de las zonas geográficas autorizadas contempladas en el artículo 2 del presente Decreto y en las que la media de la superficie destinada a la producción de patata de siembra en las dos campañas anteriores sea inferior al 80% de la media de la superficie destinada al cultivo de la patata en los dos ejercicios precedentes.

b) Exclusivas: aquéllas que se encuentren dentro de las zonas geográficas autorizadas contempladas en el artículo 2 del presente Decreto y en las que la media de superficie destinada a la producción de patata de siembra en las dos campañas anteriores sea superior al 80 % de la media de la superficie destinada al cultivo de la patata en los dos ejercicios precedentes.

*Artículo 4.–* Procedimiento de clasificación.

1.– Hazitarako patata ekoizteko baimena duten ekoizleek, urtero, urriaren 15a baino lehen, hurrengo ekitaldian hazitarako patata zein herritan landu nahi duten jakinaraziko diote Nekazaritza Zuzendaritzari. Horretarako, hazitarako patata ekoiztuko duten nekazariak eta erabiliko diren lur-zatiak zein diren zehaztuko dute, eta katastroko identifikazioa erantsiko dute.

2.– Urte bakoitzeko azaroaren 15a baino lehen, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren agindu bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Agindu horren bidez, baimendutako aldeen barruan eta harako kanpainan hazitarako patata ekoizteko baimena duten herrien zerrenda argitaratuko da. Horrek ez dio kalterik egingo Xedapen Iragankorrean 2002-2003 ekoizpen-kanpainarako ezarritakoari. Agindu horretan, herri bakoitzari emandako sailkapena zehaztuko da. Sailkapen horrek indarreango ekitaldiari baino ez dio eragingo. Horrela egin ezik, aurreko urtean argitaratutakoak indarrean dirauela ulertuko da.

*5. artikulua.*– Herrien sailkapena aldatzea.

1.– Lehentasunezko sailkapena duen herri bat sailkapen esklusibora aldatu daiteke hazitarako patata landatzeari emandako azalera-irizpidea betetzen den, 3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

2.– Sailkapen esklusiboa duen herria lehentasunezko sailkapenera aldatu daiteke baldin eta herri horretan finkak landatzen dituzten nekazarien erdiak, gutxienez, horrela eskatzen badute, eta, beti ere, patata landatzeari emandako azaleraren erdia baino gehiago euren esku badago.

Aldaketa egiteko eskabidea urte bakoitzeko irailaren 15a baino lehen jakinarazi behar zaio Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Zuzendaritzari, zeinak, eskabidea aztertu ondoren, eskatu zaion aldaketa onetsi edo ezetsiko baitu, Nekazaritzako zuzendariaren ebazpen baten bitartez, Patataren Batzorde Sektorialari eta dekretu honen 9. artikuluan aurreikusitako Batzordeari kontsulta egin ondoren.

*6. artikulua.*– Hazitarako ez den patata landatzeko baimenak.

1.– Hazitarako patata bakarrik ekoitz daitekeen herrietan, hau da, esklusibotzat hartu diren herrietan, ezin izango da hazitarako ez den patatarik landu (jatekoa edo fekula), artikulu honen 3. idatz-zatian aurreikusitako baimen bereziak salbu.

2.– Hazitarako patata ekoizteko lehentasunezko herrietan, hazitarako ez den patata landatzeko baimena emateko, baldintza hauek bete behar dira:

– Labore-sailak izurrite eta gaixotasunen eraginetik babestuko dira, aurrezaintzeko eta sendatzeko beharrezko tratamenduak eginez.

1.– Los productores autorizados para la producción de patata de siembra comunicarán a la Dirección de Agricultura, antes del 15 de octubre de cada año, las localidades donde pretendan realizar esta producción en la campaña siguiente. A tal efecto, especificarán los agricultores y las parcelas que van a dedicarse a tal cultivo identificadas catastralmente.

2.– Por Orden del Consejero de Agricultura y Pesca, anualmente se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, antes del 15 de noviembre de cada año, sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Transitoria para la campaña de producción 2002-2003, la relación de localidades autorizadas para la producción de patata de siembra en la campaña siguiente, dentro de las zonas autorizadas. En esta Orden se determinará la clasificación atribuida a cada localidad, la cual únicamente afectará a la campaña en vigor, entendiéndose que, de no hacerse, continuará en vigor la publicada el año anterior.

*Artículo 5.*– Cambios en la clasificación de localidades.

1.– El cambio en la clasificación de una localidad para pasar de localidad preferente a localidad exclusiva se producirá en función del cumplimiento o no del criterio de superficie dedicada al cultivo de patata de siembra en dicha localidad, de conformidad con lo previsto en el artículo 3.

2.– El cambio en la clasificación de una localidad para pasar de localidad exclusiva a localidad preferente se producirá cuando así lo soliciten la mitad o más de los agricultores que cultiven fincas en la localidad en cuestión y siempre que representen, además, más de la mitad de la superficie dedicada al cultivo de la patata.

La solicitud de cambio en la clasificación de la localidad se cursará, antes del 15 de septiembre de cada año, a la Dirección de Agricultura del Gobierno Vasco para su estudio, quien autorizará o denegará el cambio que se solicite, mediante Resolución, previa consulta de la Comisión Sectorial de la Patata y de la Comisión prevista en el artículo 9 del presente Decreto.

*Artículo 6.*– Régimen de autorización de cultivo de patata para otras utilizaciones.

1.– En las localidades clasificadas como exclusivas para la producción de patata de siembra el cultivo de patata para otras utilizaciones (consumo o fécula) queda prohibido, salvo la autorización excepcional prevista en el apartado 3 de este artículo.

2.– En las localidades preferentes para la producción de patata de siembra, el cultivo de patata para otras utilizaciones quedará autorizado en las siguientes condiciones:

– Se protegerán los cultivos contra plagas y enfermedades, mediante la realización de los tratamientos preventivos y curativos necesarios.

Ekoizpen integratu edo ekologikora bildutako lursailen kasuan, izurrite eta gaixotasunen eraginetik babesteko, horrelako ekoizpenak arautzen dituzten arau eta erregelamenduekin bat etorriz jokatuko da.

– Ofizialki ziurtaturiko A hazia erabiliko da, eta ez beste ezein.

3.– Salbuespen gisa, aurreko idatz-zatietan ezarritakoa gorabehera, hazitarako ez den patata landatzeko baimena eman ahal izango da arrazoi fitosanitarioak edo agronomikoak behar bezala egiaztatu eta gero. Interesdunek eskatuta, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariak emango du baimen berezi hori ebazpen bidez eta Patataren Batzorde Sektorialari kontsulta egin ondoren.

4.– Artikulu honetan zehaztutakoa betetzen den egiaztatzeari begira, nekazariek betebehar hauek izango dituzte: labore horretarako erabiltzen diren finketara sartzen utziko diete Nekazaritza Zuzendaritzako langileei, egokitzat hartzen diren egiaztapenak egin ditzaten; eta, halaber, eskatzen zaien informazio guztia emango dute.

Hazitarako ez den patata ekoizten duten nekazariek, gainera, betebehar hauek izango dituzte:

– Nekazariek Nekazaritza Zuzendaritzaren esku jarri beharko dituzte ziurtaturiko hazi horiei dagozkien etiketa ofizialak eta erosketa-fakturak, bai eta, laboresailak izurrite eta gaixotasunen eraginetik babesteko erositako produktu fitosanitarioen fakturak ere. Horretarako, agiri horiek bi urtetan gorde beharko dira gutxienez.

– Ustiapen-koaderno bat izan beharko dute, bertan patata-laboreari emandako lursailetan erabilitako tratamenduak jasoko direla.

*7. artikulua.*– Zehapenak.

1.– Dekretu honetan zehaztutakoa betetzen ez bada ezarri beharreko zehazpenak, Mintegiko Hazien eta Landareen maiatzaren 30eko 11/1971 Legearen VI. Tituluan eta Mintegiko Hazien eta Landareen Ekoizpenari buruzko Erregelamendu Orokorra onartu duen abenduaren 23ko 3767/1972 Dekretuan (maiatzaren 22ko 833/1995 Errege Dekretu bidez aldatuta) zehaztuko dira. Bestalde ere, bidezkoa den aldetik, otsailaren 20ko 2/1998 Legea aplikatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa.

2.– Ondorio horietarako, jarraian adieraziko direnak arau-hauste administratibo eta egintza klandestinotzat hartuko dira, eta Mintegiko Hazien eta Landareen maiatzaren 30eko 11/1971 Legearen 20. artikuluan eta Mintegiko Hazien eta Landareen Ekoizpenari buruzko Erregelamendu Orokorra onartu duen abenduaren 23ko 3767/1972 Dekretuaren 20.3. artikuluan ezarritakoaren arabera zehatuko dira:

En caso de parcelas acogidas a la producción integrada o ecológica, la protección frente a plagas y enfermedades se realizará de conformidad con las normas y reglamentos técnicos que regulen tales producciones.

– Se utilizará, como mínimo, semilla certificada A oficialmente.

3.– Excepcionalmente, se podrá autorizar un régimen de cultivo de patata para otras utilizaciones distinto del establecido en los apartados precedentes por motivos fitosanitarios o agronómicos debidamente justificados. Dicha autorización excepcional se producirá a solicitud de los interesados, mediante Resolución del Director de Agricultura y Ganadería y previa consulta con la Comisión Sectorial de la Patata.

4.– En orden a verificar el cumplimiento de lo dispuesto en este artículo, los agricultores estarán obligados a facilitar el acceso del personal de la Dirección de Agricultura a las fincas dedicadas a este cultivo al objeto de realizar las comprobaciones que se consideren pertinentes, así como a proporcionar cuanta información les sea solicitada.

Además, los agricultores de patata para otras utilizaciones distintas de la siembra quedarán obligados a:

– Poner a disposición de la Dirección de Agricultura las etiquetas oficiales correspondientes a la semilla utilizada y las facturas o albaranes de su adquisición, así como las facturas o albaranes de los productos fitosanitarios adquiridos para proteger a los cultivos contra plagas y enfermedades. A estos efectos se deberán conservar deberán los mencionados documentos durante un periodo mínimo de dos años.

– Llevar un cuaderno de explotación en el que se recojan los tratamientos efectuados en las parcelas dedicadas al cultivo de la patata.

*Artículo 7.*– Régimen sancionador.

1.– El régimen sancionador aplicable al incumplimiento de lo dispuesto en el presente Decreto, será el establecido en el título VI de la ley 11/1971, de 30 de mayo, de Semillas y Plantas de Vivero y en el Decreto 3767/1972, de 23 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General sobre Producción de Semillas y Plantas de Vivero, modificado por el Real Decreto 833/1995, de 22 de mayo. Asimismo será de aplicación en lo que proceda la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– A estos efectos, se considerarán infracciones administrativas como actos clandestinos de los previstos en el artículo en el artículo 20 de ley 11/1971, de 30 de mayo, de Semillas y Plantas de Vivero y en artículo 20.3 del Decreto 3767/1972, de 23 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General sobre Producción de Semillas y Plantas de Vivero, la realización de las siguientes actuaciones:

a) Hazitarako patata bakarrik ekoitz daitekeen herrietan, hots, esklusibotzat hartu diren herrietan hazitarako ez den patata ekoiztea, berariazko baimena izan ezean.

b) Lehentasunezkotzat hartutako herrietan, dekretu honen 6.2. artikuluan ezarritako betebeharrak bete gabe hazitarako ez den patata ekoiztea.

3.– Halaber, Mintegiko Hazien eta Landareen maiatzaren 30eko 11/1971 Legearen 20. artikuluan eta Mintegiko Hazien eta Landareen Ekoizpenari buruzko Erregelamendu Orokorra onartu duen abenduaren 23ko 3767/1972 Dekretuko 20.2. artikuluan zehaztutakoaren arabera honako hauek arau-hauste administratibotzat joko dira: Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak edo Hazien Zerbitzuak egin beharreko egiaztapen-lanak eragoztea, edo, orokorrean, dekretu honen 6.4. artikuluan zehaztutakoa ez betetzea.

4.– Aurreko idatz-zatian aurreikusitako arauak hausteagatik, Mintegiko Hazien eta Landareen Ekoizpenari buruzko Erregelamendu Orokorra onartu duen abenduaren 23ko 3767/1972 Dekretuaren arabera (maiatzaren 22ko 833/1995 Errege Dekretu bidez aldatuta), honako zehapen hauek ezarriko dira:

a) Artikulu honen 2. idatz-zatiaren a) letran aurreikusitako arau-hausteengatik, 750 eta 1.000 euro bitarteko isuna, eragindako hektarea bakoitzeko, eta, gehienez ere, 2.400 euro arau-hauste bakoitzeko.

b) Artikulu honen 2. idatz-zatiaren b) letran aurreikusitako arau-hausteengatik, 600 eta 900 euro bitarteko isuna, eragindako hektarea bakoitzeko, eta, gehienez ere, 2.400 euro arau-hauste bakoitzeko.

c) Aurreko idatz-zatiaren c) letran aurreikusitako arau-haustearengatik, 400 eta 600 euro bitarteko isuna, arau-hauste bakoitzeko.

5.– Isunen zenbatekoa ezarritako mugen barruan neurtzeko, kontuan hartuko dira erantzukizunari eragiten dioten gorabeherak, Mintegiko Hazien eta Landareen Ekoizpenari buruzko Erregelamendu Orokorra onartu duen abenduaren 23ko 3767/1972 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera.

6.– Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaria izango da dekretu honetan zehaztutako ez betetzeagatik zehapen-txostenak abiarazteko eta ebazteko eskumena duen organoa.

*8. artikulua.*– Hazitarako patataren ekoizle aukeratzaile titulua lortu ahal izateko gutxienezko azalera.

a) Producir patata distinta de la de siembra en localidades declaradas exclusivas para esta producción, salvo que medie autorización expresa.

b) Producir patata distinta de la de siembra en localidades declaradas preferentes para esta producción con incumplimiento de las obligaciones impuestas en el artículo 6.2 del presente Decreto.

3.– De igual modo, se considerarán infracciones administrativas como actos antirreglamentarios de los previstos en el artículo en el artículo 20 de ley 11/1971, de 30 de mayo, de Semillas y Plantas de Vivero y en artículo 20.2 del Decreto 3767/1972, de 23 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General sobre Producción de Semillas y Plantas de Vivero, impedir la realización de las labores de comprobación por parte de la Dirección de Agricultura y Ganadería o el Servicio de Semillas, o, en general, incumplir lo dispuesto en el artículo 6.4 del presente Decreto.

4.– Por la comisión de las infracciones previstas en el apartado anterior, de conformidad con lo previsto en el Decreto 3767/1972, de 23 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General sobre Producción de Semillas y Plantas de Vivero modificado por el Real Decreto 833/1995, de 22 de mayo, se impondrán las siguientes sanciones:

a) Por la comisión de las infracciones previstas en la letra a) del apartado 2 de este mismo artículo, multa de 750 a 1.000 euros por hectárea afectada, con el límite máximo de 2.400 euros por cada una de dichas infracciones.

b) Por la comisión de la infracción prevista en la letra b) del apartado 2 de este mismo artículo, multa de 600 a 900 euros por hectárea afectada con el límite máximo de 2.400 euros por cada una de dichas infracciones.

c) Por la comisión de la infracción prevista en la letra c) del apartado anterior, multa de 400 a 600 euros por cada una de dichas infracciones.

5.– Para graduar la cuantía de las multas dentro de los límites establecidos, se tendrán en cuenta las circunstancias modificativas de la responsabilidad al efecto previstas en el Decreto 3767/1972, de 23 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General sobre Producción de Semillas y Plantas de Vivero y en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

6.– El órgano competente para incoar y resolver los expedientes sancionadores por incumplimiento de lo dispuesto en el presente Decreto será el Director de Agricultura y Ganadería.

*Artículo 8.*– Superficie mínima para la obtención del título de productor seleccionador.

Hazitarako patataren ekoizle aukeratzaile titulua lortu ahal izateko, 100 hektarea edo hortik gorako azalera erabili behar da urtean-urtean hazitarako patata lantzeko.

*9. artikulua.–* Hazitarako patataren ekoizpenarekin zerikusia duten gaiei buruzko kontsulta eta aholku emateko batzordea.

Hazitarako patataren ekoizpenarekin zerikusia duten gaiei buruzko kontsulta eta aholkamendurako batzordea eratuko da, Nekazaritza Zuzendaritzari atxikita. Batzordeburua Nekazaritza zuzendaria izango da, eta gainerako batzordekideak honako hauek izango dira:

a) Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza Zuzendaritzako teknikari bat.

b) Arabako Foru Aldundian nekazaritza arloaz arduratzen den Sailaren ordezkari bat.

c) Hazitarako patata ekoizten duten erakundeen ordezkari bana.

d) Nekazaritzako lanbide erakundeen ordezkari bat.

e) Jateko patata ekoizten duten erakundeen ordezkari bat.

XEDAPEN IRAGANKORRA

2002-2003 ekoizpen-ekitaldian zehar, dekretu honen 4. artikuluaren 2. idatz-zatian aurreikusitako agindua hilabeteko epean argitaratuko da dekretu hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabe geratu da Euskal Autonomia Erkidegoan hazitarako patatak ekoizteko arauak ezarri zituen urtarrilaren 23ko 10/2001 Dekretua.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko azaroaren 12an.

Lehendakaria,
JUAN JOSE IBARRETXE MARKUARTU.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

La obtención del título de Productor Seleccionador de Patata de Siembra exigirá disponer de una superficie mínima anual dedicada a la producción de patata de siembra de 100 hectáreas.

*Artículo 9.–* Comisión para la consulta y asesoramiento en los temas relacionados con la producción de patata de siembra.

Se crea una Comisión que estará adscrita a la Dirección de Agricultura para la consulta y asesoramiento en los temas relacionados con la producción de patata de siembra, presidida por el Director de Agricultura e integrada, además, por los siguientes miembros:

a) Un Técnico de la Dirección de Agricultura del Departamento de Agricultura y Pesca.

b) Un representante del Departamento correspondiente al área de agricultura de la Diputación Foral de Álava.

c) Un representante de cada entidad productora de patata de siembra.

d) Un representante de las organizaciones profesionales agrarias.

e) Un representante de las entidades productoras de patata de consumo.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Durante la campaña de producción 2002-2003 la Orden prevista en el apartado 2 del artículo 4 del presente Decreto se publicará en el plazo de un mes desde el día siguiente de la publicación del presente Decreto.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 10/2001, de 23 de enero, por el que se establecen normas para la producción de patata de siembra en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 12 de noviembre de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSE IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.